



## ❖ HITZALDIA Hitzaldia gaur, Adimen emozionalari buruz

Ongintza Patronatuak antolatuta, eta Hilario Garrudoren eskutik, hitzaldia izango da gaur eta ekainaren 2an, Biteri kultur etxean. *Bizitzarako trebetasunak: adimen emozionala* gaiari buruz ariko dira, 15:00etatik 16:30etara. ||

## ❖ ERAKUSKETA Biteriko tailerretan umeez egindako lanak erakusgai

Haurrek Biteriko tailerretan urtean zehar egindako lanak erakusketan jarriko dituzte gaurtik ostiralera Biterin. ||

## ❖ DIRU LAGUNTZAK Diru laguntzak banatzeko araudia aurkeztuko da gaur

Elkarte eta taldeei diru laguntzak zein irizpiderekin banatzen zaizkien azalduko dute gaur Biterin, eta bertara dei egin diete Hernaniko kultur elkarte guztiei. Arratsaldeko 18:30etan Biterin. ||

## ❖ TXOTX DENBORALDIA Azken bilera gaur

Txotx denboraldiari buruz udalak adin taldeka antolatutako bilerek gaur izango dute azkena. Bilerara deitu dituzte taldeka biltzen ari diren kide guztiak eta baita gai honen inguruan kezka daukaten herritar guztiak ere. Gaur 19:00etan, Biterin. ||

## ❖ BERRIAK Tabernarietara bilera dute gaur

Berriak elkarteak deituta, Hernaniko tabernarietara bilera egingo dute gaur, 16:30etan, Biterin. San Joanetako ordutegiak, Txotx denboraldiaren balorazioa eta San Joanetako ekitaldiei buruz ariko dira. ||

# Tibeti buruzko jardunaldiak hasiko dira bihar, hitzaldi batekin

Tibeteko errealitatei buruzko hitzaldia izango da bihar Biteri kultur etxean. Larunbatean bertako artisautza eta janaria izango dira Plaza Berrin.

**HERNANIKO** Kooperazio Taldeak antolatuta, Tibeti buruzko jardunaldiak izango dira aste honetan, datorren asteazkenera arte, Hernanin. Bihar hasiko dira jardunaldiak *Tibeteko errealitateak* izenburua duen hitzaldiarekin. Hitzaldian Agurtzane Berasarte, Karmele Osa eta Thupten Palbar, Atisha kultur elkarte tibetarreko kidea

izango dira. Arratsaldeko 19:30etan izango da, Biteri kultur etxean.

**Monjeak mandala egiten** Bihartik ostegunera, argazki eta mandala (irudi mota bat) erakusketa izango da. Tibeteko monjeek mandala bat egingo dute jende aurrean. Biterin izango da, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ||

### ► Egitaraua

**Maiatzak 27, asteartea.**  
**Hitzaldia: Tibeteko errealitateak.** Hizlariak: Agurtzane Berasarte, Karmele Osa eta Thupten Palbar (Atisha kultur elkarte tibetarra). 19:30etan, Biterin.

**Maiatzak 27-29. Argazki eta mandala erakusketa.** Tibeteko monjeak mandala egiten ikusteko aukera. 11:00etatik

13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Biterin.

**Maiatzak 31, larunbata.**  
**Tibeteko artisautza eta jakiak.** Goiz eta arratsalde, Plaza Berrin.

**Ekainak 4, asteazkena.**  
**Hitzaldia: Tibeteko egoera sozio-politikoak.** Hizlaria: Mikel Aramendi analista politikoa. Biterin, 19:30etan.



## Txalapartak indartsu jo zuen Atsegindegin

MAKILAK dantzan jarri zituzten atzo Atsegindegin Txalaparta Festaren azken ekitaldi haundian. Arratsaldean hasi zen jaia eta afalostean eman zuten azken kolpea. Atsegindegin elkarte ziren Euskal Herriko bazter guztietatik etorritako txalapartariak, Hernanikoekin batera. Zuaznabar eta Goikoetxea familietako txalapartariak ere ez ziren falta, eta bide batez, omenaldi txikia egin zioten goikoetxeatarren jaiotetxeari, Erbetegi-Etxeberri baserriari hain zuten, urte dezentetan txalapartaren txokoa izan baita. Jende dezente bildu zen plazara eta giro polita izan zen. ||

*Yaben English School*  
Hurriaga z/g. 20120 Hernani Tel.: 943 33 17 63



### UDARAKO IKASTARROAK

UZTAILA  
IKASTARO INTENTSIBOAK  
adin guztientzat

UZTAILA  
UDALEKUAK  
4 urte - 10 urtekoentzat.

**MATRIKULAK EKAINAREN 1etik 20ra**

Goizetan, 10:00-12:00 - arratsaldetan 17:00-19:00

University of Cambridge Local Examination Syndicate. Zentro baimendua ES 409

*Hernaniko Udala*



*Hernani-Gipuzkoa*

**Aurtengo udan Saharako haurrik ez Hernanin?**

**Famili hartzaile bila gabiltza. Animatu!**

BILERA INFORMATIBOA: MAIATZAREN 28AN 19:30EAN BITERIN.

INFORMAZIOA  
ETA  
IZEN EMATEA

Udal lankidetzaren arloa  
943-337017 - 943-336802 - [marijo-m@hernani.net](mailto:marijo-m@hernani.net)  
Epea: maiatzak 30

**TELEFONOAK** | Taxiak: 943 550093 | Udaltzaingoa: 943 248900 | DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | Anbulatorioa: 943 006666 | Jokalari anonimoak: 943 331103 | Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
**FARMAZIAK** | Egunez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941 | Gauzez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Azken egunen tankerakoa gaur ere. Goizean laino baina ateri, eta arratsaldean zaparradak izango dira. Hegoak tenperaturak pittin bat igoko ditu, 20°C ingurura arte.  
**BIHAR** Bihar euria izango da nagusi. Goizean lanbroa izango da, eta arratsaldean euri jasak izango ditugu. Iparrak joko du eta tenperaturak behera. (euskaime)

## EA: «Gobernu Taldeak irizpide falta azaldu du emendakinak atzera botatzeko garaian»

Eak salatu du, Gobernu Taldeak aurrekontuen Plenoan eta Giza Eskubideen Batzordean gai berari buruz irizpide aldaketa izan duela.

HERNANIKO Eusko Alkartasunak salatu du, Gobernu Taldeak eta Ezker Batuak irizpide ezberdinak erabili dituztela gai beraren inguruan Plenoan eta Giza Eskubideen Batzordean.

EA: "Maiatzaren 6ko Plenoan Eak aurrekontuei emendakin bat aurkeztu zien, eta proposatu zuen herritarren artean zabaltzea ekintza sail bat hernaniarren giza eskubideen defentsara bideratua. Emenda-

kin hori atzera bota zuten Gobernu Taldearen ezezkoarekin eta Ezker Batuaren abstentzioarekin. Eta handik 15 egunera, Giza Eskubideen Batzordean bi talde horiek onartu egin zuten Eak gai beraren gainean egindako beste proposamen bat, alegia, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala hernaniarren artean zabaltzea". EAren iritziz, horrek irizpide falta adierazten du, eta aurrekontuen sendota-

sun falta "aurrekontuak aldaketa bat behar izan du onartu eta 15 egun eskasera".

### "Aurrekontu egokiak ez"

Eak adierazi du, baita ere, aurrekontuak ez zaizkiola egokiak iruditzen hernaniarren artean, eta ez zegoela alde bozkatzeko motiborik. Bestalde, esan du Gobernu Taldeak beren emendakin bat onartu duela, eta hori ondo baloratu du. ||

## Txakur gorotzen inguruko araudia gogorarazi du Udalak

Gogoratu du txakurraren jabearena dela ardura eta txakur gorotza ez jasotzeak 60 eta 300 euro arteko isuna izango duela.

HERRIKO kale gehienetan txakurren gorotzen presentzia nabarmena dela eta, Zerbitzu Publikoetako arduradunak gogorarazi du derri-gorrezkoa dela animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udaltzaingoa betetzea. Azpimarratu du debekatua dagoela txakur gorotza nonahi uztea, ardura txakurraren jabearena dela eta isunak jaso daitezkeela

arauak ez betetzeagatik.

### Txakur gorotzak jaso

Bide batez gogoratu du debekatua dagoela txakurrak itxita edukitzea nonahi, baldin eta jendea irabazteko badiete zaunka, usain eta abarrekin.

Hiriko bide, leku eta erai-kin publikoetan txakurra kontrolpean eta uhal batez lotuta eraman behar da.

Debekatua dago gorotzak

bide eta plaza publikoetan, eta oro har, leku apaingarrietan eta jendea ibiltzen den lekuetan uztea. Gorotza jasotzeko lana txakurraren arduradunarena da eta herritarrek eskubidea dute txakur jabe edo eramaileari zikindutakoa garbitzeko eskatzeko.

Arauk ez betetzea hutsegite arintzat jo daiteke eta 60 eta 300 euro arteko isunekin zigortu daiteke. ||

### ERRUGBIA

#### Hernanik irabazi du kadeteen Gipuzkoako liga

Kadeteen Gipuzkoako Ligan, Hernanik errebantxa hartu dio Bera-Berari, Ligako txapeldun gelditu dira, atzo donostiarrei 13-5 irabazita. Hernaniarrek lehen Euskal Ligako finala galdu zuten Bera-Beraren kontra, eta atzo zeukaten aukera paregabea errebantxa hartzeko. Hala egin zuten, eta Gipuzkoako txapeldun dira hernaniarrak. ||

### FUTBOLA

#### Jubenilak Ohorezko mailatik jaitsi egin dira

Jubenilen Ohorezko mailan, Hernanik irabazi egin zuen atzo Elgoibarren kontra, 5-1, baina hala ere mailaz jaitsi egin dira. Izan ere, hernaniarrek beharrezkoa zuten Burumendik galtzea, baina horrelakorik ez da gertatu. Horrela bada, Hernanik datorren urtean jubenilen 1. mailan jokatu beharko du, Ohorezko maila baino bat beherago. ||

## KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

### FUTBOLA

Gorengo maila	Anaitasuna-Hernani	3-1
Gazteen Ohorezko liga	Hernani-Elgoibar	5-1
Kadeteen Ohorezko liga	Aloña Mendi-Hernani	1-1
Infantilak Ohorezko liga	Anaitasuna-Hernani	1-0
Alebinak	Hernani-Tolosa	3-4

### ERREMONTEA

Larrea-Martinez I/Ibarzabal-Gaztelu	23-35
Ezkurra-Badiola/Zeberio II-Urrutia	40-35
Bitoria-Eizagirre/Agirresarobe-Etxeberria III	32-40
Bereziartua-Olazar/Mabxin III-Agirrezabala	30-25

### ERRUGBIA

Senior B (Eusk.Kopa. Finala)	Hernani-Getxo	53-12
Kadeteak (Gipuzkoa. Finala)	Hernani-Bera Bera	13-5

### IPUIN KONTAKETA

#### Ipuin ordua bihar

Lur Korta ipuin kontalaria izango da bihar Udaltzaingoa haurrei ipuinak kontatzen. 17:30etan 3-4 urteko haurrentzat; eta 18:00etan 5-7 urtekoentzat. ||

### IKASTAROA

#### 'Gizartearen parte hartzea' ikastaroa Biterin, bihartik ostegunera

Baketik taldeak antolatuta, hiru eguneko ikastaroa izango da Biterin, bihartik ostegunera, *Gizartearen parte-hartzea* gaiaren inguruan. Lehenengo bi egunetan parte hartzearen teoria azalduko dute: gizarteak erakundeetan parte hartzeko dituen moduak zein diren, horiek partehartzaileagoak nola egin eta abar. Ostegunean, mahai inguru bat egingo dute, ikastaroan izan diren guztiak. Ikastaroa bihar, etzi eta etzidamu izango da (maiatzak 27, 28 eta 29), 19:00etatik 21:00etara, Biterin. Dohainik da, eta izena emateko telefonoz deitu: 943 251005, edo idatzi: [partehartu@baketik.org](mailto:partehartu@baketik.org). ||

### AHT

#### Gelditour gaur Hernanin

Abiadura Haundiko Trenaren kontrako Gelditour erakusketa ibiltaria gaur iritsiko da Hernanira, arratsaldeko 16:00etan. Gelditour maiatzaren 4an abiatu zen eta herriz herri pasa da AHTak gure herrietan izango duen eragina zein izango den azaltzen. Hernanitik gaur pasa eta larunbatean bukatuko du ibilaldia Donostian. ||

### MUSA

#### Aralar tabernan partidak izango dira gaur

Aralar tabernan mus txapelketako partidak izango dira gaur: Aitor-Iñaki / Julen-Ugaitz; Cano-Joxian / Xalba-Pitxurri; Ketus-Pako / Juan-Manolo, eta Beltza-Mikel / Javier-Pello. ||

#### Santa Barbara elkartean final erdiak gaur

Santa Barbara elkarteko mus txapelketako final erdiak jokatu dira gaur elkartean, betiko orduan. Honakoak ariko dira zein baino zein: Arruti-Paco / Javi-Rafa, eta Aiert-Jon / Eusebio-Txato. ||

### ATLETISMOA

#### Atletismoko kamisetak jasotzera gaur joan behar da

Hernaniko atletismo taldeko kamisetak prest daude dagoeneko, eta jaso nahi dituenak atletismoko pistara joan behar du gaur, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago: 636 466 227. ||

### IRAGARKI MERKEAK

Pixua salgai Hernanin. 3gela, egongela, sukalde eta komuna. Kalefazio zentrala eta igogailuarekin. Deitu: 620 82 35 15.

Elgoibarko Gaztelekuarekin udaleku itxietara (Mendigorria, uztailak 9tik 16ra) joateko hezitzailea behar da (kontratua) Tfnoa: 943 74 32 28 (Argitze) edo [gazteleku@elgoibar.org](mailto:gazteleku@elgoibar.org)

Sukalderako laguntzaile behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukalde, komuna, 60 m2ko garbata eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamura, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kuperros*. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)